

Nozio liburuen gida

2014. Azaroa

Itziar Zubizarreta

Bularretik Mintzora



Nozio liburuak

- Haur txikiei eskaintzen zaizkien lehenengo liburuak dira.
- Helburu desberdinen arabera sailkatzen dira: hiztegiak, oinarrizko nozioak, egunerokotasuna, ohiturak, natura, estetika...
- Liburu hauen bidez, hizkuntzaren erabilpena suspertzen da, hurrari laguntzen baitio bere garapen kognitiboa hizkuntzarekin lotzen.
- Garrantzitsua da liburu hauek haurraren irudimena eta jakin-mina suspertzea, diseinu onak eskaintzea eta estetika aukera desberdinak erakustea.



Hiztegiak

- Era guztietako objektuak aurkezten dituzte liburu hauek.
- Hizkuntza sinbolizatzen laguntzen dute.
- Objektuen ezaugarriak aztertzeraz gonbidatzen dituzte haurrak.
- Hitz sailkapenak egitera.
- Objektu beraren irudi sinboliko desberdinak onartzera.
- Askotan jolas liburu forman agertzen zaizkigu. (Kuku-ekzutua)
- Beste zenbaitetan eszena ilustratu batean kokatzen dituzte objektuak

6 hilabetetik aurrera:

Jammes, L. Toc, toc. ItsImagical, 2008

Jadoul, É. Kuku, gordeka! Ibaizabal, 2013

AA. Sorpresa! Bruño, 2010

Graux, A. *Yo como.*; Oxenbury *Amigos.*
Editoriak Juventud.Barcelona.

Hitzak, Bruño, 2012

4-5 urtetik aurrera

*Delante de mi casa; El carnaval de los animales;
El libro de imágenes del duende Blas; El globo
amarillo; El mundo en imágenes...* Editorial
Juventud. Barcelona.

Oinarrizko nozioak

- Banan bana egituraketa logikoa antolatzen laguntzen dieten nozio espazialak, kantitatezkoak, numerikoak, eta beste hainbeste ezaugarriak aurkezten dituzten liburuak.
- Pentsamenduaren eraiketa logiko-formala hizkuntzan oinarritzeko lagungarriak.
- “Zein da hau?” eta “Nola egiten du?” galderetatik hasi eta kolorea, kantitatea, magnitudeak, konparazioak... Hizkuntzaren galbahetik pasatzen dira adierazpenak adierazpen berriak sortuz...

Urte 1etik aurrera

- Leonni, L. *¿Cuándo?; ¿Dónde?; ¿Qué es? Quién es?* Kalandraka, 2009

3 urtetik aurrera

- *Koloreak eta formak*, Bruño, 2012
- Denneux, X. *Koloreak, Zenbakiak*. Tarttalo, 2013
- *Koloro, 1,2,3*. Itsimagic, 2009
- George, P. *Contrarios, Formas*. Juventud, 2012
- Yonezu, T. *Ñam-ñam; Formak*. Tarttalo,
- Smith, L. *En el jardín del abuelo*. Océano-Travesía, 2012
- Tamarkin, A. *En el cielo, en el jardín*. Océano Travesía. 2011
- Dematons; *el globo amarillo*. Tarttalo / Juventud.
- Ka, O. eta Perrin S. *Nire sekretuen zuhaitza*. Tattalo, 2014
- Safirstain, *Ingurumarian*. Tattalo, 2014
- Matthias Aregui. *Aurretik ondoren*. Tarttalo, 2014

Eguneroko kontuak

- Haurren bizimoduan ordenak garrantzia handia hartzen du.
- Eguneroko ohiturak erakusten duten liburuetan, beren burua identifikatzen dute; pertsonaien sentimenduak eta ekimenak identifikatzen dituzte.
- Liburu hauen edukia haurrentzat ezaguna da eta haien ahotan jarri behar da kontakizuna.
- Hizkuntzaren bidez, bere unibertsoa ordenatu eta adierazten laguntzen diete liburu hauek: aurretikoak eta ondorioak, irudietan agertzen dira eta haurren baitan, hizkuntz egitura konplexuak sortuko dira.
- Etxeko eta ohiko lekuetako erritoak agertzen dira liburuotan, baita ere etxetik ateratzen hasten direneko tartea.

1 urtetik aurrera

Oxenbury, H. “*A la cama, comprando...*”
(*Sail osoa.*) Ed. Juventud. 2008

Max y Marina, (Sail osoa) Ed. Juventud,
2010...

3 urtetik aurrera

- Butterworth, *Cuando hay que trabajar...* Sail osoa. Ed. Juventud, 1995

5 urtetik aurrera

- Beck, I. “*En casa antes del anochecer; Perdido en la nieve; Perdido en la playa; Solo en el bosque*”. Ed. Juventud, 2012

Ohiturak

- Liburu hauetan haurrak aurkituko du bere portaeren eta eginbeharren isla.
- Askotan narrazio hari bati lotzen zaizkio, ohiturak eta pertsonaien gorabeherak gehienetan, irakaspen bat erakusten dute.
- Askotan, ezaugarri literario eta estetikoak hartzen dituzte liburu hauek.
- Umorea eta ironia tartekatzen dute askotan; horiek 5 urtetik aurrera ulertu eta gozatuko dira.
- Liburu hauek aukeratzean, kontu izan behar da irakaspenarekin; moralkeriak eta kulpak saihestea biziki gomendatzen dugu.

3 - 5 urtetik aurrera

- Jadoul, É. Plisti-plasta! Ibaizabal, 2013
- Jadoul, É. Txixagurea. Tarttalo, 2011
- Gomi, T. Bainura! Pamiela-Kalandraka, 2011
- Stellmaher Mattin jadanik txupeterik gabe dabil. Tarttalo, 2012
- Gutman, Hallensleben. “*Los baños, los besitos*”... Sail osoa) Ed. Juventud, 2003
- Swoboda, A. “Dudú y el orinal...” (Sail osoa) Ed. Juventud.

Natura

- Irudien liburuek oso leku garrantzitsua hartzen dute haurrek naturari buruzko ideiak osatzeko orduan.
- Oraindik aurrean izan ez dituzten animalien itxura, ohiturak eta ahotsak imitatzen dituzte irudi liburuei esker.
- Baina, animaliak eta landareak haur gehienen interesa suspertzen dute: nola jaiotzen dira, hazi, elikatu, umeak egin eta hil.
- Bizitza zikloan sartzen laguntzen diete haurrei eta ulertu arazten bizitzaren misterioak.
- Irudiatik naturara pasatzen dira haur gehienak, giro urbanoetan.

Txikien animalien liburu asko daude aipatuak aurreko sailkapenean.

4 urtetik gora

- Ramos, M. *Animaliak eta ni*. Ttarttalo, 2014
- Teckentrup, B. *Nire abate txikia, + Nire katu txikia*. Ttarttalo, 2014
- Nagata, T. *Tatsu Nagataren piztia handia*. Ttarttalo, 2013
- Carle, E. *Gose handiko beldarra*. Kalandraka, 2007
- Gravier, D. *Animalien kumeak*. Ttarttalo, 2013
- “Nire lehenengo aurkikuntzak” saila Ttarttalo argitaletxea :
Gaueko animaliak. Oihana. Haitzuloak. Lur azpiko animaliak. Bost Zentzumenak, Balea. Hegaztiak. Zubaitzak. Otsoa. Marigorringoa. Lorea. Arrautza...

Esperientzia estetikoa

- Esperientzia estetiko desberdinak eskaintzen dituzten liburuak aipatuko ditugu.
- Formak, koloreak, espazio esperientzia desberdinak.
- Arte liburuak: pintura, eskultura...
- Liburu hauek haur askoren gogoeta artistikoa suspertzen dute, haien irudimena suspertuz.

4 urtetik aurrera

- Carle, E. *Zaldi urdin bat margotu zuen artista*. Pamiela, 2012
- Carvallo, B. *Un día en la playa*. El zorro rojo, arg.
- Tullet, H. *Liburu bat*. Tarttalo, 2012
- Perrin, M. *Ikusi makusi baserrian*. Tarttalo, 2009
- Ka, O. Perrin, M. *Nire sekretuen zuhaitza*. Tarttalo, 2014
- Felix, L. *Bi begi?*. Denonartean, 2014
- Dematons, Ch. *Goazen!* Tarttalo, 2007

Guzti honez gain

Biziki gomendatzen dizuegu MeMO argitaletxeko weban sartu eta haien liburuak aztertzea. <http://www.editions-memo.fr> . Hitzik gabeko liburu asko aurki daitezke bertan, ipuinak kontatzeko, bista jolasak eta estetikoak burutzeko: hala nola, Alfabetoak, Zenbakien diseinu bereziak, Kalitate handia duten liburuak dastatzeko aukera desberdin bat ikus daiteke bertan.

École des loisirs Frantziako erakunde bat da, haiek kalitatezko haur liburuak aukeratu eta gomendatzen dituzte, adin tarte desberdinak, izaera eta helburu desberdinezko liburuak.

<http://www.ecoledesloisirs.fr/index.php>